# SKASTI

# YE




Aitor Iturralde: sinteak
Ander Izagirre: baxua
Gorka Mendizabal: bateria
Iker Iñigo: ahotsa
Josu Ondarra: tronboia
Mattin Saldias: gitarra
Mikel Alberdi: tronpeta
Xabi Uzin: ahotsa

New age (autoekoizpena, 2013)
Skasti, elkar estudioa sesioak (Elkar, 2014)
Maskarak (Oihuka, 2015)
Ye (Baga-Biga, 2018)

Skasti taldea (Zarautz, 2005) zortzikotea da. Ska erritmoekin jaio eta denboran bilakaera handia izan duen taldea da. Skasti taldeak beti izan ditu musika osagarri finkoak, alaia izateaz gaindi xumea eta jai girokoa da. Skasti taldeak dantzarako proposamen trinkoa eman digu urte hauetan guztietan.

Skasti taldearen "Ye" diskoa Zestoako Gaztain estudioetan grabatu du Eñaut Gaztañagak 2017ko bigarren seihilabetekoan. Masterizazioa Estanis Elorzak egin du Doctor Master estudioan.

Skasti taldearen laugarren diskoak "Ye" du izenburua. "Ye", besteak beste, ingeleseko oh yeah esamoldearen laburdura da Skasti taldekoentzat. Bilatu gabeko beste kointzidentzia da Lanzarote uharteko herri baten izena. Gatozen musika eta hitzetara. Diskoak denetarik dauka, baina ororen gainetik musika une dantzagarriak, irudimentsuak. Pop, indie, erritmo beltzak, funkia, rocka, rock alternatiboa era gardenean eskainita. Letra aldetik esango dute garai zail batetik ateratzear gaudela, edo ez, konplexurik gabe, ikasitakoa bere historian naturaltasunez txertatzea da egokiena, eta egunerokoan integratzea eta hori gauzatzeko oihu ozen eta dotorea. Hor Skasti taldearen musika aldarrikapena.

## ROSA PARKS

Denok sentitu gara noizbait gutxietsiak. Denok sentitu dugu noizbait gehiengo hegemonikoren batek zapaldu gaituela. Abesti hau keinu txikiek mundua aldatzeko izan dezaketen indarraz jabetzeko gai den orori eskainita dago; halaber, aurrekoa ukatzen duenari zuzendutako iraina da. Aurreko diskoaren jarraipen naturalena. Erritmo dantzagarriak eta teklatuen presentzia gehiagorekin.

## MARTITZ

Martitz XXII mendeko planeta bat da. Bertan, bermatuta dago herritarren parte-hartzea erakunde publikoetan, bermatuta kulturaren transmisioa, eta jakintzaren demokratizazioa behar bat dela denentzat. Haur zein helduek ondokoaren sufrimendua aitortzen ikasi dute eta heriotza zibila iraganeko kontu bat da. Tamalez, Martitzeko biztanleak ez dira ezertaz gogoratzen, ezta mendien izenez ere. kantua progresiboki gorantz doa haizeen joko finekin, gitarren melodiekin eta sinteen potentziarekin.

## GALDU/IRABAZI

Engainuz jositako pasarte zehatz batek inspiratu gintuen. Harreman toxikoak ekarri zizkigun gogora, hainbat eta hainbat gure inguruan. Bitxia da min egiten digun horrengana hurbiltzeko dugun joera. Stockholm sindromea. Eta horrek guztiak, aldi berean, iradoki zigun egungo hezkuntza sistema umezurtz dagoela emozioen hezkuntzari dagokionez; porrotaren kudeaketan, esaterako. Beste emaitza bat lortu nahi badugu, jarrera aldatu behar dugu.

Skasti rockeroena erakusten dugu, haizeen presentziarik galdu gabe. "Zergatik lauso" (maketa, 2011) abestiaren introtik abiarazitako proiektu batetik atera dugu.

## WASABI

Garai zail batetik atera eta, konplexurik gabe, ikasitakoa bere historian naturaltasunez txertatzen eta egunerokoan integratzen eta aplikatzen duenaren harrotasun oihua. Mila buelta eman dizkiogu, gorabehera askorekin. Baina emaitzarekin gu ere harrituta geratu gara. Foals edo Bloc Party taldeen lehen diskoen kutsua du.

## $H_2O$

Kontaezin itsaso, ibai eta erreka balio ditu euriak. Eta haietako batean gora eginez jarraitu nahi izan duzu bidaiarekin sorlekuraino, jatorriraino. Horretarako bi enbor, bost adar eta atzamarreko bi zauriz egindako baltsa erabili duzu. Zuhaitz zaharrenek maileguan utzi dizute hori guztia, egunen batean, ordainean, gazteenak besarkatuko dituzula espero baitute. Inguru birjinenean aurkitzen zara; egurrezko baltsak zaramatza, albo bietara begiratzea aholkatzen dizun musikarekin. Musikarako behar den gauza bakarra entzun nahi duen belarria besterik ez da. Eskua uretan sartu duzu. Ura zainetan gora hasi zaizu igotzen. Erritmo handiko abesti rockeroa. Estribillo itsaskor eta rock sinplea bezain indartsua. Haize gabeko abestietako bat, sokei presentzia utziz.

## GEISER

Nomofobiari eginiko abestia; mugikorrik (bateriarik) gabe geratzearen beldurrari, alegia. Baldintza gogorretako testuinguru geografiko latza deskribatzen da abestian; beharbada, gaitza pairatzen duen norbaiten bizitokitzat metafora izan daitekeena. Estaldura eza lehorte eta bakardadearekin parekatzen hasi den gizartean... gero eta gehiago gara ihes egiten ikasi dugunak. Zatoz gurekin. Betiko talde gustukoenen eragina. Red Hot. Guk normalean egindako erritmoetatik aldendu egin da.

## TUTIVILLUS

Kings of Leon taldearen abesti batetik abiatuta, espiritu zirikatzailea berreskuratu nahi izan dugu, baina desiratzen denarekin kontuz ibili behar dela gogorarazi nahi izan da, lortutakoa norberaren aurka joan daitekeelako. Guri, hasierako Kings of Leon taldearen riffak gogorarazten dizkigu. Bukaera aldera rock perkusibo kantagarri batekin bukatu dugu.

## HORMA-IRUDIA

Pertsona batek beste bati egin dakizkiokeen gauzarik latzenek inspiratu dute abesti hau. Batez ere, inpunitateaz ari da, eta horrelako gertaerak amesgaizto batekin erkatzen ditu, tamalez, historian maiz errepika izan diren amesgaiztoak.

"Maskarak" bukatu ondoren sortutako lehen abestia, zuzenekoetan jada jo izan dugu. Oso izaera gogorra duen kantua dela iruditu zaigu beti.

## BLACK CARD

Kasabian taldearen "the wrong man has the power" esalditik abiatuta eta bertan jasotzen den ideia oinarri hartuta, botereak eta diruak duten harremanaz eta norbanakook harreman horrekiko dugun jarreraz dihardu. Kantu dibertigarria, irribarrea ateratzen zaigu entzuten dugunean. Ironikoa.

## SIXTY SEVEN

Elkar erakartzen diren bi pertsonen arteko ondorioa. Istorioko protagonista horren jabe da eta erakarpen horrek sor dezakeen jokoaren gidari sentitzen da. Gauez gertatzen diren momentuak eta desio duen pertsona horrekin egoteko aukerak aprobetxatzeaz hitz egiten du. Esperimentatzeko kantua da, rock-elektroniko kutsuko kanturen bat egitea probatu nahi genuen. Sortu genuenean ilusio handia egin zigun, agian single bezala pentsatu genuen.

## BI

Bi pertsonen (bikote, lagun...) artean iritzi ezberdinak egon litezke, baina bien iritziak, ideiak eta pentsamenduak bat egiten duten uneaz hitz egiten du. Nahiz jendartean egon, begirada batek edo esaldi batek bi pertsona horien artean sortzen duen momentua edo elkar-ulertzea, mundu paralelo batean. "Maskarak" diskorako sortu genuen kantuetako bat izan zen, berreskuratu dugu eta moldaketak egin ondoren gustura sartu dugu diskoan.

## MAKE RAZOR GREAT AGAIN

Bizitza gainera erori zaion pertsona batez hitz egiten du. Hainbeste galdera, hainbeste kontraesan... Dena iluna da, dena negatiboa da eta irtenbide bakarra ikusten du. Askatasunaren bila edo zerbait hobeagoa izango denaren bilaketan, irtenbide bakarra ikusten du. Bere buruaz beste egitea. Rock elektronikarekin nahastuta, esperimenturako joera azaldu dugu.

## SLOW FUNK

Red Hot Chili Peppers taldeko Anthony Kiedis-en kantaera abiapuntutzat hartuta, sormenaz, sortzeko estiloez, poesiaz eta esandakoa justifikatzeko beharraz ari da abestia; eta baita inprobisatzearen balioaz ere. Gainera, sortze-prozesuaren ostean artistak lehengora itzultzeko duen beharra duela dio, hurrengo sorkuntzarako indarrak batzeko duen beharraz, prozesua bera mugarik gabe abstrakziora eta dispertsiora eginiko bidaia den aldetik, batzuetan arriskutsua izan daitekeen bidaia. "Ibiltzen ikasten" egin genuenetik abesti motel bat egiteko gogoa genuen berriz. Funk estiloan sakondu dugun kantua da, Daft Punk taldearen "Random access memories" gogorarazten digu, agian kutsu malenkoniatsuagoekin.

baga biga
MUSIKA IDEIAK
Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)

ritxi aizpuru + skasti (2018ko urtarrilaren 23an)

# SKASTI

## YE




Aitor Iturralde: sintes
Ander Izagirre: bajo
Gorka Mendizabal: batería
Iker Iñigo: voz
Josu Ondarra: trombón
Mattin Saldias: guitarra
Mikel Alberdi: trompeta
Xabi Uzin: voz

**New age (auto producido, 2013)**
**Skasti, elkar estudioa sesioak (Elkar, 2014)**
**Maskarak (Oihuka, 2015)**
**Ye (Baga-Biga, 2018)**

Skasti (Zarautz, 2005) completan un octeto que empezó como un grupo de ska y que disco a disco ha labrado con arados musicales singulares con un resultado que viene sorprendiendo en cada álbum. El entramado Skasti tiene una propuesta musical muy enraizada en la banda, el sentido del baile impregna cada momento del álbum.
Skasti ha grabado "Ye" durante el segundo semestre de 2017 en los estudios Gaztain de Zestoa con Eñaut Gaztañaga. La masterización la ha realizado Estanis Elorza en los estudios Doctor Master (Donostia).

Skasti presenta su cuarto disco titulado "Ye" que puede ser la abreviatura de la locución inglesa oh yeah. Otra coincidencia no buscada por Skasti es que Ye es el nombre de un pueblo de Lanzarote. Un par de apunte sobre musica y letras de Skasti. El disco enlaza muchos ritmos, tiene de todo pero el hilo conductor radica en la idea del baile, música para bailar y pasarlo bien. Skasti es un grupo alegre, sencillo y festivo, cultivado en propuestas de gancho y muy bailables. Pop, indie, ritmos negros, funk, rock y rock alternativo esgrimido desde la transparencia. En los textos vemos a un Skasti que grita orgullosamente que en estos tiempos de pesadumbre hay que aplicar con naturalidad todas las experiencias para que la cotidianidad no nos sepulte. Skasti clama y canta.

### ROSA PARKS
Todos nos hemos sentido alguna vez menospreciados. Todos hemos sentido alguna vez que alguna mayoría hegemónica nos ha pisado. Canción dedicada a aquellas personas que creen que con pequeños gestos se puede hacer un mundo mejor, esto es, para aquel que se reivindica en contra de la mayoría comentada anteriormente.
Es la continuidad más natural del disco anterior de Skasti. Ritmos muy bailables con más presencia de sintetizadores.

### MARTITZ
Martitz (Marte en euskera) es un planeta del siglo XXII. En él está permitida y bien incrustada la participación de la ciudadanía en las entidades públicas, la trasmisión de la cultura... La democratización de la sabiduría es una necesidad para todos. Niñ@s y adultos admiten el sufrimiento del prójimo, y la muerte civil está superada. Sin embargo, los ciudadanos de Marte ya no se acuerdan del pasado, ni de los nombres de los montes. Canción que viene hacia arriba progresivamente, con vientos finos, guitarras muy melódicas y potencia de sintetizadores.

### GALDU/IRABAZI
Está inspirada en una época repleta de engaños. Nos trajo a la memoria relaciones tóxicas, habituales alrededor de todos. Es rara la costumbre que tenemos a acercarnos a aquello que no nos hace bien. Síndrome de Estocolmo. Todo esto nos hizo pensar en la pobre educación que hay hoy en día sobre la misma educación de emociones, sobre cómo llevar una derrota o una mala noticia. Si queremos que todo esto cambie, debemos empezar con nosotros mismos, con nuestro interior.
Muestra el lado más rockero del grupo, sin perder presencia de los vientos. Creado a partir del intro de "Zergatik Lauso" (maqueta, 2011).

### WASABI
Es un grito de orgullo sobre cómo vas aplicando con naturalidad experiencias de una mala época de tu pasado en el día a día. Le hemos dado mil vueltas, con muchos altibajos. El resultado nos ha asombrado gratamente. Comparable con canciones primerizas de grupos como Foals o Bloc Party.

### H2O
La lluvia vale la infinidad de mares y ríos. Y en uno de esos vas río arriba, hasta el nacimiento de él. Para ello has usado dos troncos, cinco ramas y varias heridas en tus manos. Los árboles más viejos han sido los que te han dejado todo eso, porque en un futuro quieren que abraces a los árboles más jóvenes. Vas por un paraje virgen, sobre la balsa de madera, oyendo música que te hace mirar el entorno. Metes la mano en el agua, y te ha empezado a subir por las venas. Canción rockera con mucho ritmo. Estribillo pegadizo y rock simple pero muy potente. Una de las canciones que no lleva vientos, dando más presencia a las cuerdas.

### GEISER
Letra hecha a la nomofobia, al miedo a quedarnos sin móvil. Describe un entorno geográfico muy duro, como el de alguien que padece la nomofobia. En una sociedad en la que se compara el estar fuera de cobertura con una sequía o algo peor... cada vez somos más los que hemos aprendido a escapar de ella... Únete a nosotros. Influencia de nuestros grupos favoritos. Puede que se parezca a alguna canción de Red Hot. Nos hemos alejado un poco de nuestros ritmos habituales.

### TUTIVILLUS
Cogiendo como inspiración una canción de Kings of Leon, queremos recuperar el espíritu vacilón, y recordando que andar con cuidado con lo que deseamos, porque lo conseguido puede venir en tu contra. Canción con riffs que nos recuerdan a Kings of Leon. Termina con un rock percusivo que es muy cantable para los oídos.

### HORMA-IRUDIA
Va sobre las cosas más terribles que puede hacer una persona a otra. Habla sobre la impunidad, comparando estos hechos con sueños, que por desgracia, son pesadillas que se repiten a lo largo de la historia. Primera canción que creamos nada más sacar "Maskarak". Personalidad cañera, ya la hemos tocado en directo alguna vez.

### BLACK CARD
Inspirados en la frase "the wrong man has the power" del grupo inglés Kasabian, hablamos sobre la relación que tienen el dinero y el poder, y de la actitud que tenemos ante ella. Canción divertida y distinta. Te saca la sonrisa al escucharla. Muy irónica.

### SIXTY SEVEN
El resultado de que dos personas se atraigan. El protagonista es consciente de ello, y siente que tiene el mando del "juego" que se pueda crear. Cuenta momentos de la noche, y la posibilidad de que se encuentren las dos personas deseadas. Nos ha valido para experimentar. Hemos jugado con un rock-electrónico, probando cosas no tan habituales en nuestro grupo. En la primera etapa de la creación la hemos visto como single.

### BI
Puede haber diferentes opiniones entre dos personas, pero habla sobre el momento donde los pensamientos, ideas o las mismas opiniones llegan a coincidir. Una mirada o una frase sirve para darse cuenta de ello. Canción creada para el disco anterior, que después de varios cambios hemos querido recuperarlo para YE.

### MAKE RAZOR GREAT AGAIN
A una persona se le ha caído el mundo encima. Tantas preguntas sin respuesta, tantas contradicciones... Todo es oscuro, negativo y solo hay una salida. Para encontrar la ansiada libertad solo ve una salida. Suicidarse. Mezclamos el rock con la electrónica, aparece nuestro guiño a la experimentación.

### SLOW FUNK
Cogiendo como pequeño reflejo la manera de cantar de Anthony Kiedis (Red Hot Chili Peppers), habla sobre la creatividad, sobre diversas maneras de expresarla, de la poesía y de la necesidad de justificar lo escrito. También sobre la importancia de la improvisación y la espontaneidad. Explicamos que en el proceso de creación el artista suele tener la necesidad de volver atrás, de juntar energías para una nueva creación. Esto tiene sus riesgos por el hecho de ser un viaje sin límites que se dirige hacia lo abstracto y disperso. Teníamos ganas de crear una canción más tranquila, después de "Ibiltzen Ikasten" del disco anterior. Hemos querido profundizar en el funk. Nos recuerda a canciones del disco "Random acces memories" de Daft Punk, pero con toques más melancólicos.

baga biga
MUSIKA IDEIAK
Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)

ritxi aizpuru + skasti (23 de enero de 2018)